

## SIDRA-SAGARDOA

## “Gorenak”en aurkezpena, kalitatezko zigilu pribatu eta kolektiboa.

SAGARDOAREN LURRALDEA - 17/03/2011 · 11:55

Sin comentarios



**Sagardo Mahaia Elkarteak** sortutako “Gorenak” kalitatezko zigilu kolektiboko lehendabiziko sagardo botilak aurkeztu zituzten pasa den Martxoaren 3an Zelaia sagardotegian **Gipuzkoako hamahiru sagardotegik**.

Sagardotegiak **Alorrene** (Astigarraga), **Altzueta** (Hernani), **Barkaiztegi** (Martutene), **Begiristain** (Ikaztegieta), **EgiLuze** (Errenteria), **Gartziategi** (Astigarraga), **Gaztañaga** (Andoain), **Gurutzeta** (Astigarraga), **Isastegi** (Aldaba Txiki, Tolosa), **Olaizola** (Hernani), **Sarasola** (Asteasu), **Zapiain**

(Astigarraga) eta **Zelaia** (Hernani) dira.

**Sagardotegi** guztiak tamaina ertain edo handikoak dira, gutxi gora behera Gipuzkoako sagardo produkzioaren %50 ekoizten dutenak eta **sagardoaren botilako salmentatik baino “txotx”etik gehiago** bizi direnak.

**Sagardo Mahaia**ko bozeramaileen arabera, zigilu kolektibo eta pribatu honen helburua **kontsumitzaileari sagardorik onena bermatzea** eta **sektorea gaur egungo zein etorkizuneko beharretara** indartzea dira.

Lehendabizi hartu den erabaki estrategikoa, sagastien eta sagardoaren garapen egokirako neurriak hartzea izan da, baita bertako sagarraren aldeko konpromezu garbiak eta erabakiorrak hartzea ere. Horien artean, sagar ekoizleekin beren behar guztiak asetzeko behar duten eta Euskal Herrian ekoizten den sagar homologatu guztia erosteko adostu duten konpromezua goraiatu behar da.

Bigarren erabaki estrategikoa **bermearen araudia sortzea eta ezartzea** izan da. Horretarako, sagardoaren elaborazio prozesu guztian jarraitu beharreko irizpide eta lanerako moduak ezarri dira: kalitatezko sagarrak, dentsitatearen kontrola, PHaren analitika, garraztasun bolatila...

Neurri hauek guztiei esker, **kalitate goreneko sagardoa lortzen ari dira eta bezeroeri kalitate hau bermatu nahi diote beren marka eramango duten botila guztietan.**

**Kalitatezko marka berriaren bereizgarria**

“Gorenak” kalitatezko zigilua botilaren goikaldean jartzen da eta kolore doratuko zuhaitz baten marrazkia duen fondo beltzeko estalki batekin bereizten da. “Gorenak” hitza tamaina handian azaltzen da honako leloa txikiagoan: ‘Euskal Herriko Sagardo Gorenak. Sidras Selectas del País Vasco’.

Ikusi Gorenak-en aurkezpen bideoa: Gorenak, Euskal Herriko sagardorik onenak.

Informazio gehiagorako: [www.sagardogorenak.com](http://www.sagardogorenak.com)

**Tags:** calidad, Gorenak, Sagardo Mahaia, sagardoa, Zelaia

*Anterior post*

Karlos Arguiñano abre la nueva temporada de sidra  
Karlos Arguiñanok ireki zuen txotx denboraldi berria.

*Siguiente post*

Nuevo producto con Eusko Label: Sidra Natural del País Vasco.  
Eusko Labeldun produktu berria: Euskal Herriko sagardo naturala.

Tu comentario / Zure komentarioa

## Sagardoaren Lurraldea



Kale Nagusia 48  
20115 Astigarraga  
t: 00 34 943 550 575  
f: 00 34 943 559 575  
[info@sagardoarenlurraldea.com](mailto:info@sagardoarenlurraldea.com)  
[www.sagardoarenlurraldea.com](http://www.sagardoarenlurraldea.com)

RSS Feed  
Twitter  
Facebook

## Buscar / Bilatu

## Categorías

Azokak-Ferías  
Besteak-Otros  
Ekitaldiak-Eventos  
Esperientziak-Experiencias  
Formazioa-Formación  
Gastronomía-Gastronomía  
Historia-Historia  
Kultura-Cultura  
Lehiaketak-Concursos  
Museos-Museoak  
Sagarra-Manzana  
Sagastia-Manzanal  
Sidra-Sagardoa  
Sidrerías-Sagardotegiak  
Turismoa-Turismo

## Post Recientes



Otsua-enea sagardotegiaren 25. urteurrena.



Sagardoaren Eguna Leitzan ekainaren 7 eta 8an.



XX. Sagardo Jaia ospatuko da Pasai Antxon ekainaren 1ean.



XII. Sagardo Lehiaketa. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sariak.

Nombre *requerido*

Email *requerido*

Web

Enviar



Sagardoaren munduko bitxikeriak: Maria Josefa de Larramendi, gizonen munduko emakume asaldatzailea.

### Comentarios recientes

---

**Sagardoaren Lurraldea en “Baserri munduko memoria” sagastiko lan ezberdinen eskutik Sagardoetxean.**

**Sagardoaren Lurraldea en Lezon Sagardo Eguna ospatuko da larunbat honetan.**

Xabier en **Lezon Sagardo Eguna ospatuko da larunbat honetan.**

Xabier en **“Baserri munduko memoria” sagastiko lan ezberdinen eskutik Sagardoetxean.**

Goretti en **“Sagastiak loretan” ARGAZKI LEHIAKETA Facebook-en.**